

# GORPUTZ-IRUDIA ETA ALDERDI EMOZIONALAK GAINPISUAN ETA OBESITATEAN AURRENERABEZAROAN

**Tesiaren egilea:** Eva Pereda Pereda

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia eta Ikerketa Metodologia

**Tesi-zuzendaria:** Karmele Salaberria Irizar eta Enrique Echeburúa Odriozola

**Tesiaren laburpena:**

Ikerketa honen helburu nagusia 8 eta 12 urte bitarteko haurrengan gainpisuaren eta obesitatearen arteko erlazioa aztertzea izan zen, zenbait aldagai soziodemografiko, psikologiko eta emozional kontuan izanik. Lagina Debagoieneko Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren mailetakoko 1.937 aurrenerabek osatu zuten.

Prebalentziari erreparatu, laginaren % 34,8k gehiegizko pisua (gainpisua eta obesitatea) zuen. Mutilen ehuneko handiagoak zuen obesitatea, nesken ehunekoaren aldean, baina ez zen alderik aurkitu gainpisua zuten adingabeen artean.

Oro har, obesitatea zuten aurrenerabeek beren gorputz-tamaina gutxietsi egin zuten (% 99,5) eta gorputz-asegabetasun handia adierazi zuten (% 78,1). Era berean, puntuazio handiagoak aurkitu ziren antsietate-sintomatologian, depresio-sintomatologian eta elikadura-asaldurak izateko arriskuan, eta puntuazio baxuagoak autoestimuan.

Gainpisua zuten aurrenerabeei dagokienez, hauek ere nork bere gorputz-tamaina gutxietsi zuten (% 95,9) eta gorputz-asegabetasun handia adierazi zuten (% 64,9). Era berean, aldagai psikologiko eta emozionaletan, gainpisua zuten aurrenerabeek, oro har, obesitatea zuten ikaskideek baino puntuazio baxuagoak lortu zituzten, baina pisu normala zuten ikaskideek baino puntuazio handiagoak.

Pisu normala zuten aurrenerabeei dagokienez, gehienek ez zuten gorputz-distorsiorik adierazi, hots, gutxiespena % 6,2koa izan zen, eta gorputz-asegabetasunaren ehunekoa txikiagoa izan zen, % 32koa izan arren. Ebaluatutako gainerako aldagaien puntuazioak ere nabarmen txikiagoak izan ziren, batez ere depresio-sintomatologian, autoestimuan eta elikadura-asaldurak izateko arriskuan.

Azkenik, azpimarratu behar da, lagin komunitarioa izanik, azterketa honetako adingabeek ez zutela nahasmendurik pairatu. Halere, arrisku-faktore batzuk adierazi zituzten, ebaluatutako alderdi emozionalen aurrean zaurgarritasun handiagoa ekar lezaketinak, eta, bereziki, arrisku hori handiagoa izan zen gainpisua eta obesitatea zuten adingabeengan. Honenbestez, tesi honetan lortutako emaitzen arabera, funtsezkoa izan daiteke gorputz-irudiaren eta aldagai emozionalen gainean eskuhartzea, 10 urte bete baino lehen.